



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/23

Bizkaia bildur da, Kantabrian dagon parke eolikoaren proiektuak Ordunteko mendizerrako hegaztietan izango dauen ingurumen arloko eragina dala eta

Kantabriako Gobernuako Industria, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak proiektu horren administrazio baimenerako eta Ingurumen Eragineko Adierazpenerako eskaria zabaldu eban joan dan irailean. Proiektuak 15 airesorgailu instalatea aurreikusten dau, eta baita bertara joateko eta zerbitzua emateko bideak, tentsino ertaineko barruko sarea eta azpi-estazio elektrikoa be. Zehatzago esanez, guztira 49,5 megawat-eko potentzia daukien airesorgailuak Erkidegoaren hego-ekialdean instalauko litzatekez, Asón-Agüera eskualdean, Sobako udalerrian.

Bizkaitik oso gertu dagola ikusita eta Ordunteko Mendizerrako espazio naturalean ingurumen arloko eragina izan daikela kontuan izanda, bertan bizi, hazi eta kabiak egiten dituen hegaztien artean batez be (horreen artean mehatxatutako espezieak dagoz, sai zuria, larraxoria edo sai arrea, besteak beste), Foru Aldundiak hainbat alegazio aurkeztu ebazan proiektuaren aurrean. Unzuetak gogorarazo dau, gainera, Bizkaiko Ingurumen Zuzendaritzak Ordunteko babesaren gaineko txosten tekniko bat bialdu eutsala Kantabriako gobernuari 2012an, Natura 2000ren barruan dagon lekua dalako. Natura 2000 Bioaniztasunaren kontserbaziorako guneen sare ekologiko europarra da.

Foru Diputatuak Batzarretako talde guztien laguntza eskatu dau, Aldundiak Ordunteko gune naturala eta bertako fauna babesteko aurrera errotan ari dan kudeaketean laguntzeko. Holan, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, “proiektu hori epaitegietara joan daitekela” esan dau eta, hori dala eta, “oinarri sendoak jarri beharko litzatekez, Europako instantzietara jo behar bada be”.

LIZTOR ASIARRA

Beste alde batetik, eta EH Bilduko Batzarretako taldearen erantzun-eske bati erantzunez, Unzuetak liztor asiarraren edo vespa velutinaren Bizkaiko egoeraren gainean bere Sailak dituan azkenengo datuak eroan ditu Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko batzordera. Horreen artean azpimarragarria da urtearen hasieratik joan dan urriaren 31ra arte espezie inbaditzaile horren 1.542 kabi kendu dirala. Horreetatik 1.379 Basalaneke teknikariek kendu ditue, eta 203 suhiltzaileek. Foru diputatuak oso modu positiboan baloratu ditu vespa velutinaren ugalketari aurre egiteko udalerriaz, Neiker-Tecnalia teknologia zentroko adituakaz eta Bizkaiko erlezain alkarte nagusiakaz, BAMEPE eta Bizkaiko Erlezainen Elkartea (BEE), ezarri dan jarduketa protokoloaren emoitzak.

Holan, Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak erlezainen sektorea “aktibo eta bizirik” eusteko beharra azpimarratu dau, eta kabiak kentzeagaz batera aurrera erotan diran jarduketa bi aitatu ditu, gai hori landu dan Batzar Nagusien aurreko agerraldian. Horreetako lehenengoa, Neiker-Tecnaliagaz lankidetzan, erlezainek, liztor asiar



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

erreginak harrapetako eta, holan, kolonia gehiago ez sortzeko, jarri dituen tranpen jarraipenerako azterlan espezifikoa egitea izan da.

Unzuetak adierazo dauenez, azterlan horretan sei erlezainek hartu dabe parte, eta bakoetak modelo desbardinatoko tranpa bi instalau ditu, euren erlauntzetan elementu erakargarri desbardinak jarri. Jarraipen horregaz, vespa velutinaren 1.013 erregina harrapau dirala ikusi da, gehienak apirilean. Horrez gain, hainbat ondorio atera ahal izan dira: “etxean egindako elementu erakargarria eraginkorragoa izan dala liztor asiarrak harrapetako orduan, baina elementu hori ez dala selektiboa, eta bertako entofaunaren parte diran diptero eta himenoptero asko be harrapetan dituala; bespido autoktonoek vespa velutinak baino geroago hasten dabela euren jarduera; maiatzaren erdialdetik aurrera behera egiten dauela liztor asiar erreginen harrapaketak, eta langileen harrapaketek gora egiten dabela; eta eguraldiak eragina daukala liztor asiarraren jardueran, euri gehiago eta tenperatura hotzagoa dagonean harrapaketa gitxiago egoten dalako”, adierazo dau Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak.

Ingurumeneko Foru Zuzendaritzak finantzau dauen azterlan horregaz batera, Nekazaritza Zuzendaritzatik bultzatutako beste ekimen bat be egin da: Bizkaiko leku altuetan erleen kokalekuak jarteko proiektu pilotua, liztor asiarraren jarduera gehieneko garaietan.

ANIMALIAKAZ EGITEN DIRAN HERRI KIROLLEN KONTROLA

Batzar Nagusietako Podemos Bizkaia taldeak egindako erantzun-eske bati erantzunez, Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak adierazo dau bere Sailak “ez bestelako dopatze kasurik erregistrau animaliakaz egiten diran herri kiroleko probatan, 2016ko zementian salatu zan azkenengo positibotik”. Unzuetak gogorarazo dauenez, 137/2016 Foru Dekretuaren 13. artikulua, “kirol lehiaketa horreetan parte hartzen daben animalien tratu etikoa eta ongizatea bermatzen daben kontrol zorrotzak” jasoten ditu, “horreen artean probatan Aldundiko albatariak egotea barne”. Dekretu horrek ezarten dau, baita be, proba horreetako epaileek proba geldiarazotera behartuta dagozala, animalia tratu txarra jasoten ari dala sumatzen badabe. Horrez gain, horren eragina jasaten daben animalien jaube diran kortek zehapenak jasoten ditue.

Podemos Bizkaia taldeko Jose Angel Elgezabalen beste galdera bati erantzunez, Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak, Aldundiko basozainen taldearen aldekoa izan dan epaia onartu egin dala jakinarazo deutse Batzarretako taldeei. Epai horretan, suteen itzalketan egiten daben lana autortzen jake. Holan, Unzuetak jakinarazo dau bere Saila basoetako suteen kontrako Plan bat prestetako beharretan ari dala, 2009tik indarrean dagon gaur egungoa ordezteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/11/2017

Bizkaia teme por el impacto del parque eólico cántabro de Zalama en las aves de Ordunte

La Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural de Bizkaia, Elena Unzueta, ha trasladado esta mañana, en las Juntas Generales de Bizkaia, el malestar de la Diputación Foral por la falta de respuesta del Gobierno de Cantabria a las alegaciones medioambientales presentadas por la Dirección de Medio Ambiente al proyecto de parque eólico promovido por el Gobierno de Cantabria en la sierra de Zalama, limítrofe con la sierra vizcaína de Ordunte, incluida dentro de la Red Natura 2000.

La Dirección General de Industria, Comercio y Consumo de Cantabria abrió el pasado mes de septiembre a información pública la solicitud de autorización administrativa y Declaración de Impacto Ambiental de este proyecto, que contempla la instalación de 15 aerogeneradores, así como caminos de acceso y servicio, red interna de media tensión y subestación eléctrica. En concreto, los aerogeneradores, con una potencia total de 49,5 megawatios, se instalarían en la zona sureste de la Comunidad, en la comarca Asón-Agüera, en el término municipal de Soba.

En vista a la cercanía al territorio de Bizkaia y su posible afección ambiental al espacio natural de la Sierra de Ordunte, y especialmente a las diferentes aves que en la misma habitan, crían y anidan (entre las que se encuentran especies amenazadas como el alimoche, la alondra o el buitre leonado), la Diputación foral presentó una batería de alegaciones al proyecto. Unzueta ha recordado, además, que la Dirección de Medio Ambiente de Bizkaia ya remitió al gobierno cántabro un informe técnico en 2012 sobre la protección de Ordunte como espacio integrante de Natura 2000, red ecológica europea de áreas de conservación de la biodiversidad.

La Diputada foral ha recabado el apoyo de todos los grupos junteros a las gestiones de la institución para proteger el espacio natural de Ordunte y su fauna. En este sentido, el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha alertado sobre “la posible judicialización de este proyecto, por lo que habría que poner sólidos cimientos en caso de que haya que recurrir a estancias europeas”.

AVISPA ASIÁTICA

Por otro lado, y a raíz de una pregunta del grupo juntero de EH Bildu, Unzueta ha trasladado a la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural los últimos datos de su Departamento sobre la situación de la avispa asiática o vespa velutina en Bizkaia. Entre ellos destaca que desde principios de año y hasta el pasado 31 de octubre, se ha procedido a la retirada de un total de 1.542 nidos de esta especie invasora, de los cuáles 1.379 han sido eliminados por técnicos de Basalan y 203 por bomberos. La diputada foral ha valorado positivamente los resultados del protocolo de actuación establecido para combatir la proliferación de la vespa velutina, en colaboración con los municipios, expertos del centro tecnológico Neiker-Tecnalia y las dos principales asociaciones de Apicultores de Bizkaia, BAMEPE y Bizkaiko Erlezainen Elkartea (BEE).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En este sentido, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha subrayado la necesidad de mantener "activo y vivo" el sector apícola y ha mencionado dos actuaciones que se han desarrollado como complemento a la retirada de nidos en una comparecencia ante las Juntas Generales en la que se ha abordado esta cuestión. La primera de ellas es el desarrollo en colaboración con Neiker-Tecnalia de un estudio específico de seguimiento de las trampas colocadas por apicultores para capturar avispa reinas asiáticas y evitar así que se conviertan en fundadoras de nuevas colonias.

Tal y como ha indicado Unzueta, en este estudio han participado seis personas apicultoras, cada una de las cuales ha instalado dos trampas de modelos diferentes y con atrayentes diferentes en sus colmenas. Con este seguimiento se ha constatado la captura de 1.013 reinas de vespa velutina, la mayor parte de ellas en el mes de abril, y se han extraído diversas conclusiones: "que el atrayente casero ha resultado más eficaz a la hora de capturar las avispas asiáticas, si bien este atrayente no es selectivo y captura también un número significativo de dípteros e himenópteros que forman parte de la entofauna local; que los véspidos autóctonos comienzan su actividad más tarde que la vespa velutina; que a partir de mediados de mayo descienden las capturas de avispas asiáticas reina y aumentan las capturas de obreras, y que la climatología influye en la actividad de la avispa asiática, ya que las precipitaciones y las temperaturas más bajas coinciden con el descenso de las capturas", ha indicado la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural.

Junto a este estudio, financiado por la Dirección foral de Medio Ambiente, se ha desarrollado otra iniciativa impulsada desde la Dirección de Agricultura: un proyecto piloto para la ubicación de asentamientos apícolas en zonas de altura de Bizkaia en la época de máxima actividad de la avispa asiática.

CONTROL DE PRUEBAS DE DEPORTE RURAL CON ANIMALES

En respuesta a una pregunta del grupo juntero de Podemos Bizkaia, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural de Bizkaia ha asegurado que su Departamento "no ha vuelto a registrar ningún caso de dopaje en animales participantes en pruebas de Deporte Rural vasco desde el último positivo denunciado en noviembre de 2016". Unzueta ha recordado que el artículo 13 del decreto foral 137/2016, sobre cuyo cumplimiento ha preguntado el portavoz de Podemos Bizkaia, Jose Angel Elgezabal, "incluye estrictos controles que aseguran un trato ético y el bienestar de los animales que toman parte en dichas competiciones deportivas, incluida la presencia de veterinarios de la institución foral en las mismas". El decreto establece, además, que los jueces o juezas de las pruebas están obligados a detenerlas a la mínima sospecha de maltrato animal, así como sanciones a las cuadradas propietarias de los animales afectados.

También a otra pregunta de Jose Angel Elgezabal, de Podemos Bizkaia, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural ha trasladado a la comisión el acatamiento de una reciente sentencia judicial favorable al colectivo de agentes forestales de la Diputación, a los que reconoce su labor en la extinción de incendios. En este sentido, Unzueta ha informado de que su Departamento está trabajando en la elaboración de un nuevo Plan contra incendios forestales, que sustituirá al actual, en vigor desde 2009.